

Homeschooling, halabeharrez

Ume txikerrak dituzten familientzako gomendio batzuk idazteko eskatu didate, tonu arinean, une astun hauetan laguntzeko. Eskatutakoari ekingo diot, nahiz eta anbibalentzia bat bizi dudan: une batzuetan sentitzen dut egoera "arintzen" lagundu dezakedala, eta beste batzuetan albiste bat entzun eta ezintasunez negarrari ematen diot.

Askoren artean dagoen gaia da etxean lana eta neska-mutikoak bateragarri egitea. Une honetan gure alabak ez dira neskatoak, baina nire azken hogeitaz urteak ere gogoan ditut lana eta familia bateragarri egin guran. Espero dut lagunduko didala amatasunaren kontu hau ere arintzen, auto-eskakizunez bete-betea egoten baita askotan.

Ez dira gomendioak, ez zait gustatzen inori ezer gomendatzea; neure buruari esan behar izan nizkion gauzak dira, eta oraindik ere askotan esan behar izaten dizkiodanak.

Batzuk egin nituen eta berriro errepikatuko nituzke; beste batzuk gurago nuke aspaldi hausnartu izan banitu eta ez ziren inoiz garaiz iritsi; hirugarrenak, "Ezta txantxetan ere ez dut hau berriz egingo" motakoak, horiek dira gehien gustatzen zaizkidanak eta nire inperfekzio maitearekin adiskidetzen nautenak.

1.-Nire alabak zaintzen saiatu nintzen lan edo beharrean nenbilen bitartean

Hori ezinezkoa da, azkenerako, isilpean noski, "zure alaba maitea itotzea" desiratu barik, edo ordenagailua, ontzi-garbigailua edo esku artean duzun gailua amorru handiz iraindu barik. Beti hobe bigarrena lehenengoa baino. Esaten diot neure buruari: hartu denbora bat lanerako eta beste bat alabei arreta jartzeko. Etxean heldu bat baino gehiago bagaude, hori

nahiko erraza da. Zer denbora dudan jakiteak, gutxi bada ere, segurtasuna ematen du eta izugarri arintzen du zama.

Baina hori ez da beti posible, badakit, bene-benetan dakit.

Ez da batere erraza pertsona heldu bakar batek umeekin denbora asko pasatzea.

Era berean, ez da gauza bera egun osoa haur jaioberri batekin edo adin desberdinetako umeekin ematea. Elkarbizitza hori zeuk bakarrik jasatea saihestu badezakezu, bilatu laguntza, zalantza barik. Saihestu ezin bada, berriz, zerbait egin beharko da. Kasu batzuetan, heldu bakarra dagoenean, aukera bakarra suizidioa dela irudi lezake. Ba, ez! Bada beste aukera bat, muturreko uneetan kolpe bat hartu duzun itxurak egin eta negarrez hastea... Tira, uste dut beti daudela beste aukera batzuk.

Egunean zehar hainbat lan egiten ditugu, eta ez dira denak berdinak. Batzuek arreta handia jartzea eskatuko dute eta beste batzuek gutxiago. Bere garaian, kontzentrazio handienekoak gauean kokatu nituen nik, umeei lo hartu ostean. Zenbat aldiz ez ote zaigu gertatu azkenean lokartu direnean gure umetxoek, eta ez hain umetxoek, ohetik isil-gordeka irten, maindireak mugitu barik irristatuz —atea erdi zabalik utzita genuen, badakigulako erroak kirrinka egiten duela eta ez dugulako ukitu ere egin gura ihes egiteko unea iristen denean—, eta korridorean izerdia lehortu eta lortu duzula uste duzunean:

—Amaaaaaaa!

—(Amakakazarra!) Banoa, laztana!

Agian horren ondorioz, oso berandu arte geratu beharko dut beharrean, eta goizean jaikitzeke ordutegiak berrikusi beharko ditut, eta siestak berriz agertu beharko du, dekretuz!

Bizitzen ari garen asteotan, ezinezkoa da errutinekin jarraitzea lehen antolaturik genituen bezala, baina etxean. Askotariko egoerak bezainbeste irtenbide egon litezke. Baina lanean kontzentraziorik handiena jartzea eta ume txikerrak izatea ez da bateragarria aldi berean.

Begi-bistakoa dirudi, baina ziur esaten dizuet ez dela hain begi-bistakoa ere. Badakit jende asko saiatzen dela, ni neu ere saiatu nintzen. Zorionez, uko egin nion, neskatilak ito baino lehen.

Egia da denbora igaro egiten dela, batzuetan gu konturatu ere egin barik, hazi egiten direla eta zu ere moldatu egiten zarela. Horretaz oraintxe jabetzen naiz, atzean irrati bat entzunez ari bainaiz idazten, rap musika gela batean eta Extremoduro bestean.

2.- Gauza berriak probatzea antolaketan, familiako eta etxeko erantzukizunetan

Etxeko lanak partekatzea borroka amaigabea izaten da, batez ere nerabeekin, duela gutxi arte etxean denetarik egin gura zuten pertsona berberekin. Harrituta nago erabaki batekin eta bere emaitzekin. Hozkailuan taula bat jarri dugu etxeko lanen eta egunen zerrendarekin ez dakit noiz arte... (eten-puntuak). Bakoitzak gura duena egin eta idazten du. Konpromisoa da ez egitea ez purrustadarik ez eskakizunik. Ahopean esango dut eurek ez entzuteko, baina lehian dihardute beren zereginak bete guran:

—Ez! Nik egin behar nuen hori!

—Aste oso-osoan neuk hustuko dut ontzi-garbigailua!

Horixe gertatzen da eskakizuna benetan desagertzen denean (ez zeure barruan gorde eta "gainera botatzen" diezunean, denok ezagutzen ditugun une bero horietako batean). Pertsonok gozatu egiten dugu talde-lanean, horren beharra dugu, betiere taldeak edo "taldeburuak" pertsonak irensten ez baditu.

3.- "Ezer ez egiteko" tarte txiki batek aukera ugari ireki ditzake.

Logikoa dirudi pentsatzea umeak egun osoan okupatuta edukitzeak gauzak erraztu egin ditzakeela. Uste dut kontua ez dela hain sinplea. Okupatuta, zertan? Denoi gertatu zaigu noizbait bat-batean bururatzea: "Ondo ote dago ume hori?", eta lasterka haren gelara joatea, ordubete daramagulako ezer entzun barik.

Lagun batek kontatu zidan bere umea txoritxo bat bezala txioka eta bere buruarekin solasean entzuten zuela, bera beste gela batean zegoen bitartean. Gelara sartu zenean, ikusi zuen bere bihotzeko kutunak 600 € zati txiki-txikietan moztuak zituela txoritxoari jaten emateko. Edozelan ere, 3 urteko haur bat ordubetez oso-oso kontzentratuta egon daitekeela egiaztatu dezakegu.

Umeak milaka gauzarekin liluratu daitezke, baina denbora behar dute horretarako. Egiten dutena interesatzen zaienean, kontzentratuago egoten dira, lasaiago, zoriontsuago, eta, ondorioz, inguruan daudenak ere bai. Ez dakit, etxean itxita, elkarbizitzarako irtenbiderik onena oso okupatuta egotea den. Agian kontua izango da zertan dauden okupatuta.

Ez dut esan gura ez dutenik egin behar kasu bakoitzean eskolak bidaltzen diena eta familia bakoitzak uste duena; soilik uste dut aukera ona dela momentu batzuk izatea "Oraintxe ez dakit zer egin" esaten duten horietakoak. Hau da, norberaren interesak berrager daitezen, egunean zehar egituratu bako tarteak uztea, horrek sortzen duen hutsunea behar adina denboran mantendu ahal izateko, betiere hori ulertzen duen eta "aspertuta nago" etengabeak ernegatuko ez duen norbaiten ondoan baldin badaude. Berrager daitezen neska-mutiko grinatsu horrek zeuzkan interesak eten barik galdetzen zuenean: "Eta zergatik?" Edo behin eta berriro eskatzen zuenean: "Kontadazu berriro".

Zer gertatuko da hutsuneari beldurra galtzen badiot? Eta pentsatzen dut: "Bizitza bat ez da hondatzen bi, hiru edo lau hilabetea... Urteak eta urteak behar izaten ditugu gure bizitza behin betiko hondatzeko".

4.- Programetako eduki asko eguneroko egoeretan agertzen dira

Integralak eta deribatuak... nik ez dut lortzen horiek aurkitzea, baina ziur nago gaiari buruz dudak ezagutza urriagatik izango dela. Ziur nago nire lagun Elenak nonahi ikusten dituela, baina ez da beharrezkoa ni nire lagun Elena izatea. Izango dira, ziur nago, ikasketa-programetan bertan, interesatzen zaizkidan edo nire bizitzako uneren batean interesatu zaizkidan gauzak eta denborarik ezagatik baztertu nituenak. Nire aukera da gauza askori bizia emateko eta nire alabekin partekatzeke. Nahiz eta ez izan oraintxe programan tokatzen dena.

Ezagutzen ditut jateko mahats-mahaspasekin jolastuz zenbatzen ikasi zuten haurrak; beren logelan oharrak jarritz idazten ikasi zutenak, besteak beste, "kaxoi pribatua, ez ireki"; beste batek ikasi zuen garezurra ez dela guztiz biribila burua leihoko bi barroteen artean sartuta ordu erdi igaro behar izan zuenean; elektrizitate estatikoaz, poliespanezko bolatxoak betetako puf bat lehertu zuenean, ohetik haren gainera salto eginda; eta haren ama ere gorri-gorri jarri eta lehertu egiten dela pufa bezala, bi ordu pasatzen dituenean eske eta eske kexatzeari utzi barik.

Gure bizitzari eragiten diona esanguratsua zaiguna da, eta ikasteko gogoak pizten diguna. Eta zerbait gertatzen bazaio une honetan gure bizitzari erasanda edo ukituta egotea da. Agian, mahaian luzatzen diren solasaldiak hausnartzeko eta komunikatzeko abaguneak dira, eta baliteke informazioa bilatzera eta hariei tiraka hastera eramatea gu. Hizkuntza besteei kontatzeko, geure buruari kontatzeko, entzuteko eta besteei irakurtzeko tresna bat da. Baliteke hortik hastea bizi-zentzua hartzen hizkuntza eta literatura, zientziak, filosofia, historia...

Helduagoak direnean ari naiz pentsatzen. Txikerragoak direnekin ez da oso desberdina. Beraien interesak ez dira gainerako gizakion interesen aldean oso bestelakoak, munduan duten esperientziaren zenbatekoa baino ez da aldatzen. Helduekin hizpide ditugun gauza berberei buruz berba egin dezakegu neskato eta mutikoekin ere. Bizi diren mundua interesatzen zaie, niri bezala, zuri bezala.

5.- Nire alaben jolas-denbora eta alabekin jolastea ez dira gauza bera. Jolas egin eta lagun egitea

Gauza batzuk partekatu ditzakegu eta benetan dibertitu egiten gara, baina haur bat dendetara, txakurretara, lehoietara edo oro har "zerbait izatera" jolasten denean, baliteke guk jolas hori onartzea beraiek entretenitzeko, baina ni, argi eta garbi esanda, ez naiz orroka eta marruka dibertitzen. Jolas-interesak, helduak garen aldetik, guk ere baditugu, baina, oro har, gure umeen interesen aldean bestelakoak dira.

Gure alaben proposamenetako bat zen "Ni bi urteko txakurra nintzela, Pepa deitzen nintzela, eta..., eta zu nire jabea zinela, baina ez kezkatu, ez zenuen ezer egin behar, ados?"

Lau hankatan zebiltzan han zaunkaka eta, pixka bat parte hartzearren, lapikorako zen azenario-zati bat bota nien airera. Gu bertan egotea behar dute, hori bai. "Zoaz zeure gelara jolastera" esateak, normalean, bost minutu irauten du, salbu zuk ikus ditzazun gura ez dutenean, eta noski, une horietantxe izan gura dituzu zuk bistan, hain zuzen ere.

Beste adibide bat jartzearren, izan zen garai bat bankuetara eta "higiezinen burbuiletara" jolastu beharrekoa. Zelan ez! Familia elkartutakoan bazkaloste guztietako elkarriketa zen:

—Amaaaa! Bankura etorriko zara? (zeren, jakina, bietako inork ez du bankura doan andrea izan gura).

—Laster joango naiz! (eta atzamarrak gurutzatzen ditut, ea ahazten zaien, zeren eta, aitor dut, bankuetara jolasteak ere ez nau dibertitzen).

Eta bat-batean, argia piztu zait!, tipula mozteko erabiltzen dudana labana ikusi dut..., eta bai, banku batean lapurreta egitea hori bai dibertigarria! Ahoa eta sudurra zapi batekin estali eta ...

—Hau lapurreta da! Emadazue diru guztia! (mesedez, noski).

—Aaaaa! Aaaaa! Buaaaa!

Kito jolasa! Garbi dago, gure interesak ez datoz bat.

Halaz guztiz, beste leku batetik ere egon gaitezke presente: jolasean, interesetan eta ikasten "laguntza ematean". Horrek ez du esan gura jolasean parte hartzea, baizik eta euren eginkizunetarako behar duten materiala ematea, lotu gura duen sokari mutur batetik eustea berak beste muturra lotzen duen bitartean, bere jakin-mina asetzeko erantzutea edo informazioa bilatzen laguntzea, etab.

Arintasun pixka bat ekarriko nuela espero dut, agian askorentzat hain latzak diren une hauetan behar izango dugu-eta; horien artean benetan zori onekoa eta esker onekoa sentitzen naiz ni.

Vega Martín. Haur Hezkuntzako diplomaduna. **Dirayaren** sortzaileetako bat

ARTIKULU HAU "BBK FAMILY" blogetik hartutakoa da.

Se acabaron las vacaciones y vuelve el tan temido homeschooling

Me han pedido escribir unas cuantas recomendaciones para familias con peques y con un tono ligero que acompañe el peso de estos momentos. Me pongo a ello, a pesar de vivir una ambivalencia en la que intento integrar momentos en los que puedo "aligerar" y esos otros en los que escucho una noticia y rompo a llorar de impotencia.

Un tema presente consiste en compatibilizar trabajo y niñas y niños en casa. En estos momentos nuestras hijas ya no son niñas, pero pienso también en mis últimos veinte años tratando de compatibilizarlo. Espero que me ayude también a aligerar este asunto de la maternidad, tan cargado muchas veces de auto-exigencias.

No son recomendaciones, no me gusta recomendar nada a nadie, son cosas que me tuve, y todavía tengo, que decirme a mí misma en muchos momentos.

Algunas las hice y volvería a repetirlas, otras quisiera haber pensado en ellas hace mucho y nunca llegaron a tiempo. Las terceras, "ni de coña vuelvo a hacer esto", son las que más me gustan y las que me reconcilian con mi querida imperfección.

1. - Intenté atender a mis hijas mientras trabajaba.

Esto es imposible sin terminar deseando, en secreto, por supuesto, "ahogar a tu hija querida" o insultar como una poseída al ordenador, al lavavajillas o al objeto que tengas entre manos. Siempre mejor lo segundo que lo primero.

Me digo: ordena un tiempo para trabajar y otro para atenderlas. Si estamos más de un adulto, esto es relativamente fácil. Saber con qué tiempo cuento, incluso si es poco, da seguridad y aligera enormemente. Pero esto no siempre es posible, lo sé, de verdad que lo sé.

En algunos casos, cuando solo hay un adulto, pareciera que la única opción es el suicidio. ¡No!, hay otra, en momentos extremos puedes fingir un golpe y ponerte a llorar...en fin, supongo que siempre hay otras opciones. No es nada fácil pasar mucho tiempo una sola persona adulta con tus criaturas.

Tampoco es lo mismo pasar todo el día con un bebé recién nacido, que con peques de diferentes edades, etc... Si puedes evitar vivir este acompañamiento en soledad, busca ayuda sin dudar. Si no es posible evitarlo, algo habrá que hacer, también.

Hay diversos trabajos que hacemos a lo largo del día y no son todos iguales. Algunos requerirán mucha concentración y otros menos. En su momento, ubiqué los de máxima concentración por la noche, cuando se habían dormido. ¿Cuántas veces nos hemos visto, saliendo de la cama de nuestros bebés, y no tan bebés, dormidos al fin, de forma furtiva, deslizándonos sin mover las sábanas, habiendo dejado la puerta entreabierta, porque sabemos que chirría la bisagra y no queremos ni tocarla cuando llegue el momento de escapar, y cuando, ya en el pasillo secándote el sudor, crees que lo has conseguido:

-Amaaaaaaa!,

-(¡Amamierda!) ¡Voy, cariño!

Quizás esto haga que me tenga que quedar hasta las tantas trabajando y tenga que revisar los horarios de levantarse por la mañana, que reaparezca la siesta, ¡por decreto! En las semanas que estamos viviendo en estos momentos, no es posible seguir con las rutinas tal y como las teníamos organizadas antes, pero en casa. Habrá tantas posibles soluciones como situaciones diversas. Máxima concentración en el trabajo y peques no es compatible de forma simultánea. Parece obvio, pero os aseguro que no lo es tanto. Me consta que muchas personas lo intentan, yo lo intenté. Afortunadamente renuncié a ello antes de ahogarlas.

Es verdad que pasa el tiempo, sin que a veces nos demos cuenta, crecen y tú te adaptas también. Tomo conciencia en este preciso momento en el que me descubro escribiendo con una radio de fondo, rap en una habitación y Extremoduro en la otra.

2.-Probando cosas nuevas de organización, responsabilidades familiares y domésticas.

Compartir las tareas de la casa suele ser la pelea infinita, especialmente con adolescentes, las mismas personas que hace no tanto querían hacer de todo en casa. Estoy asombrada con una decisión y los resultados.

Hemos puesto en el frigorífico un cuadro que tiene una lista de tareas domésticas y días hasta... (Puntos suspensivos). Cada cual hace lo que quiere y lo anota. El compromiso es cero reproches y cero exigencias. Lo voy a decir bajito sin que me oigan, pero se pelean por las tareas:

-¡No! esa la iba a hacer yo.

-¡Estoy haciendo pleno en recoger el friegaplatos esta semana!

Esto es lo que suele pasar cuando la exigencia desaparece de verdad (no esa que se la guardas y se la "escupes encima" en ese momentazo que todos y todas reconocemos). Las personas disfrutamos haciendo equipo, lo necesitamos, siempre que el equipo, o el "jefe del equipo" no se trague a las personas.

3.-Un poco de espacio para "no hacer nada" puede abrir infinitas posibilidades.

Parece lógico pensar que tener a niñas y niños ocupados todo el día puede facilitar las cosas. El asunto creo que no es tan sencillo. ¿Ocupados en qué? Todos tenemos la experiencia de ese niño o niña de quien de pronto piensas ¿estará bien?, y sales corriendo a su habitación porque hace una hora que no la oyes. Una amiga me contó que escuchaba a su retoño piar

como un pajarito y tener conversaciones consigo mismo mientras ella estaba en otra habitación. Cuando fue a verle, el colega había recortado 600€ en pequeños trocitos que se comía el pajarito.

En cualquier caso, comprobamos que un niño de 3 años puede estar enormemente concentrado durante una hora. Los niños se apasionan por millones de cosas, pero necesitan tiempo para ello. Cuando les interesa lo que hacen, están más concentrados, más tranquilos, más felices y, en consecuencia, quienes están a su alrededor también. No sé si la mejor solución para la convivencia, encerrados en casa, sea que estén muy ocupados. Dependerá de en qué.

No propongo que dejen de hacer lo que en cada caso su escuela les envíe y cada familia considere, simplemente creo que es una oportunidad para enfrentarse a momentos de "no sé qué hacer". Que existan tiempos en el día no estructurados, en los que el vacío que esto genera pueda ser sostenido el tiempo suficiente, al lado de alguien que entienda y no le crispe el constante "me aburro" para que re-aparezcan intereses propios. Esos que tenían cuando era ese niño o niña apasionada que no paraba de preguntar- "¿y por qué?" O cuando decía todo el tiempo "cuéntamelo otra vez".

¿Qué pasa si pierdo el miedo al vacío? ...y pienso "una vida no se arruina en dos, tres o incluso cuatro meses...Solemos necesitar años y años para conseguir que nuestra vida sea definitivamente una ruina".

4.- Muchos de los contenidos de los programas aparecen en situaciones cotidianas.

Las integrales y las derivadas, yo no consigo encontrarlas pero seguro que tiene que ver con mi escaso conocimiento del tema. Estoy segura de que mi amiga Elena las ve por todas partes, pero no hace falta que yo sea mi amiga Elena. Hay, seguro, en los propios programas

de estudio, cosas que me interesan o me han interesado en algún momento de mi vida y por la falta de tiempo, renuncié a ellas.

Es mi/su oportunidad de darle vida a montones de cosas y compartirlas con mis hijas. Aunque no sea la que toca ahora en el programa. Conozco a niños y niñas que aprendieron a contar jugando con las uvas pasas que se comían, a escribir poniendo notas en su habitación, entre otras cosas, "cajón privado, no abrir", otra aprendió que el cráneo no es del todo redondo cuando pasó media hora con la cabeza metida entre dos barrotes de la ventana, sobre la electricidad estática, cuando reventó un puf lleno de bolitas de poliespan, tirándose desde la litera sobre él, y que su madre también se pone roja y revienta como el puf, cuando lleva ya dos horas sin parar de demandar y quejarse.

Lo que afecta a nuestra vida es lo que nos resulta significativo y nos despierta el deseo de aprender. Y si algo está nuestra vida, en este momento, es afectada. Quizás las tertulias en la mesa que se alargan son oportunidades para reflexionar y comunicarnos, y puede que nos lleven a buscar información y tirar de hilos. El lenguaje es una herramienta para contar, contarse, escuchar, leer a otros. Puede que desde ahí empiecen a cobrar un sentido vital la lengua y la literatura, las ciencias, la filosofía, la historia...

Estoy pensando en cuando son más mayores. Con quienes son más peques no es muy diferente. Sus intereses no son muy diferentes de los del resto de los mortales, solo cambia la cantidad de experiencia en el mundo. Podemos hablar con ellas y con ellos de las mismas cosas que con personas adultas. Les interesa el mundo en el que viven, como a mí, como a ti.

5.- El tiempo de juego de mis hijas no es lo mismo que jugar con ellas. Jugar y acompañar

Hay cosas que podemos compartir y nos divertimos realmente, pero cuando un niño o una niña juega a tiendas, perros, leonas o en general "a ser...", quizás aceptemos jugar por

entretenerlos pero yo, en concreto, no me divierto rugiendo. Los intereses de juego, que como adultos también tenemos, generalmente son diferentes de los de nuestras criaturas.

Una frase de nuestras hijas era:

-“Vale que yo era un perro que tenía dos años, que me llamaba Pepa, y que.., y que..., y que... tú eras mi dueña, pero no te preocupes, no tenías que hacer nada, ¿vale?”

Pululaban por allí ladrando a cuatro patas y por participar un poco, les lanzábamos al aire un trozo de la zanahoria que íbamos a echar al cocido.

Necesitan que estemos presentes, eso sí. Lo de “vete a jugar a tu habitación” dura, por lo general, cinco minutos, salvo cuando no quieren que les veas tú, claro, y en esos momentos es cuando, precisamente tú, quieres tenerlos a la vista.

Por poner otro ejemplo, existió el momentazo de jugar a bancos y “burbujas inmobiliarias”. ¿Cómo no?, era la conversación de todas las sobremesas en las comidas familiares:

-¡Amaaaa!, ¿vas a venir al banco? (porque claro, ninguna de las dos quiere ser la señora que va al banco).

-Dentro de un rato (cruzo los dedos a ver si se les olvida, porque confieso, a bancos tampoco me divierte jugar)

Y de pronto, ¡bombilla!, veo el cuchillo cebollero con el que estoy cortando la cebolla y ¡atracar un banco sí que me divierte! Me tapo la boca y la nariz con un pañuelo y...

-¡Esto es un atraco!, ¡dadme todo el dinero! (por favor, por supuesto).

-¡ahhhhhh!, ¡amaaaaa!, ¡buaaaaa!

Se acabó el juego. Definitivamente, nuestros intereses no coinciden.

Sin embargo existe otro lugar desde el que estar presente, el de "asistir" el juego, los intereses y el aprendizaje. Esto no tiene que ver con participar jugando, tiene que ver con aportarles el material que necesitan para sus elaboraciones, sujetar un extremo de la cuerda que quiere atar mientras ata el otro extremo, responder o acompañarle a buscar información para saciar su curiosidad, etc.

Espero aportar un poco de la liviandad, que quizás, solo quizás, necesitemos en momentos tan duros para muchísimas personas, entre las que me siento realmente afortunada y agradecida.

Vega Martín. Diplomada en Educación Infantil. Co-fundadora de Diraya.

Este ARTÍCULO esta extraído del blog "BBK FAMILY".